


# LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MAILAKO BARNE EBALUAZIOA



AHOZKO ADIERAZPEN ETA  
ELKARRERAGIN PROBA APLIKATZEKO  
ORIENTABIDEAK





### 3.3. AHOZKO ADIERAZPEN ETA ELKARRERAGIN PROBA APLIKATZEKO ORIENTABIDEAK

Hemen aurkezten diren materialen helburua da Lehen Hezkuntzako 3. mailako irakasleek beren ikasleen hiru hizkuntza ezberdinetan, hots, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, mintzatzeko kompetentzia ebaluatzeko beharrezkoak dituzten tresnak eskaintzea, eskema eta irizpide bateratu batzuetatik abiatuta.

#### MATERIALAK ETA ANTOLAKETA

- Mintzamen proba aplikatzeko gidaliburua
- Ikasleen zerrenda
- Proba
  1. atala: Elkarrizketa ebaluatzailearekin
    - Ebaluatzailearentzako fitxa gai eta galderekin
  2. atala: Bakarrizketa
    - Ebaluatzailearentzako fitxa
    - Ikasleentzako fitxa
  3. atala: Elkarrizketa
    - Ebaluatzailearentzako fitxa
    - Ikasleentzako fitxa
- Ebaluazio irizpideak
- Ebaluazio erregistroa
- Erlojua eta grabagailu digitala (beharrezkoa dela iritziz gero)

#### Proben antolaketa: euskara / gaztelania

ATALA	HELBURUA	PROZEDURA	TRESNAK	DENBORA
<b>PROBAK IKASGELAN AURKEZTEA</b>				1-2 minutu
<b>AGURRA</b>				1 minutu
<b>1. ATALA ELKARRIZKETA EBALUATZAILEAREKIN</b>	Heldu batekin izaniko ahozko elkarreragina ebaluatzea ikasleen interesei lotutako hainbat gairi buruz	Ikasleekin hizketa/elkarrizketa bat izateko hainbat galdera proposatzen dira. Elkarrizketa hau banaka egingo da bertan diren bi ikasleekin	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ebaluatzailearentzako fitxak</li> <li>- Ebaluazio irizpideak</li> <li>- Emaitzak erregistratzeko txantiloia</li> </ul>	1:30 - 2 min (ikasle bakoitza)
<b>2. ATALA BAKARRIZKETA</b>	Ikasleek egiteko zehatz batetik abiatuta bakarrizketako testuak ekoizteko duten gaitasuna ebaluatzea	Ikasleek, egoera batetik abiatuta, proposatutako gaia garatu beharko dute. Horretarako, fitxan lagungarri izan daitezkeen hainbat galdera eta ideia azaltzen dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ebaluatzailearentzako fitxa</li> <li>- Ikasleentzako fitxa</li> <li>- Ebaluazio irizpideak</li> <li>- Emaitzak erregistratzeko txantiloia</li> </ul>	1:30 - 2 min (ikasle bakoitza)

<p style="text-align: center;"><b>3. ATALA ELKARRIZKETA</b></p>	<p>Lan zehatz batetik abiatuta, ikaskide batekin ahoz elkarreragiteko gaitasuna ebaluatzea.</p>	<p>Ikasleak ahoz elkarreragin behar du ikaskidearekin eta, proposatutako egoeraren arabera, lana egin.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ebaluatzailearentzako fitxa</li> <li>- Ikasleentzako fitxa</li> <li>- Ebaluazio irizpideak</li> <li>- Emaizak erregistratzeko txantiloia</li> </ul>	<p style="text-align: center;">1:30 - 2 min (ikasle biak)</p>
---	---	--	--	---

Ahozko probaren prozedura dela-eta, aintzat izan behar dira ondorengo irizpideak:

### IRIZPIDE OROKORRAK

- Proba aplikatzeko bi une eta leku daude:
  - Talde osoari ohiko ikasgelan proba aurkeztu/azaltzea.
  - Proba bi ikasleko taldeetan egingo da horretarako prestatutako toki batean, euskara eta gaztelaniazko mintzamen probak direnean, baina ingelesezko hizkuntza komunikaziorako konpetentzia ebaluatzeko ohiko ikasgelan egiten saiatuko da. Edonola ere, egiteko ahalik eta ingurunerik gertukoena bilatzen saiatuko da, eta beti, tutorea erreferentziazko irudia izanik.
- Binaka egingo dute proba ikasleek.
- Ebaluatzaileek ikaslea uzkur ez sentitzea eta lasai hitz egitea lortu behar dute.
- Oso garrantzitsua da ikasleek probaren atal bakoitzean zer egin behar duten ulertzea, beraz, proba hasi baino lehen beharrezko azalpen guztiak eman eta zalantza denak argitu behar dira.
- Proba egiteko bi ebaluatzaile izango dira; batek solaskidearena egingo du eta besteak ikasle bakoitzaren puntuazioa dagokion txantiloian erregistratuko du.
- Proba egin bitartean rol horiek elkartrukatu ahal izango dira.
- Gelak proba egiteko baldintza egokiak bete behar ditu: erosotasuna, isiltasuna...
- Proba egiteko erabilitako gelan ebaluatzaileak eta ikasle biak baino ez dira egongo.
- Proba amaitutakoan ikasleak beren ikasgelara itzuliko dira.
- Baliagarria da testuak berrikusteko proba grabatzea.

### PROBA HASI BAINO LEHEN

- Ebaluatzaileek zehatz-mehatz ezagutu behar dituzte probak zein ebaluazio irizpideak eta tresnak.
- Proba aplikatu ahal izateko beharrezko material guztiak prest izan beharko dituzte (ikusi materialen zerrenda).
- Tutorearen lana garrantzitsua da ebaluazioaren aurretik, eta baita bikoteak ahalik eta homogeneousenak antolatzeke orduan. Taldeari zer eta nola egingo den jakinarazi behar dio. Eginkizun handia du ikasleak sentikortu eta bikoteak ahalik homogeneousenak egiteko prozesuan.

## PROBA EGITEN DEN BITARTEAN

- Lehen ebaluatzaile batek ikaslearekin elkarreragin eta saioa zuzenduko du. Beste pertsona, oster, emaitzak erregistratzeaz eta ikasleen irteera eta sarrera errazteaz arduratuko da. Garrantzitsua da ebaluatzaileekin batera tutorea egotea, ikasleentzat erreferentziatzko pertsona izan dadin.
- Ikasle bakoitzarekin elkarreragiten duen pertsonak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:
  - Ikasle bakoitzari proba egiteko beharrezkoa den materiala eman.
  - Jarraibideak eta proba ezberdinetarako kontsignak poliki eta argi irakurri. Ikasleak eroso sentitzeko eta probak ahalik eta ondoen egin ahal izateko eskura dituen baliabide guztiak jarri.
  - Ikasle bat urduritasunagatik edo hizkuntza gaitasun ezagatik proba egiteko gai ez bada, ebaluatzailearen materialean proposatzen zaizkion baliabide eta estrategia ezberdinak erabiliko ditu.
  - Ikaslearekiko elkarreraginak ahalik eta adeitsuena izan behar du, mintzatzeko duen gaitasuna errazte aldera.
  - Saiatu isilune luzeak ekiditen, bereziki elkarreraginaren zatian. Horretarako, ebaluatzailearentzako materialean jasotako gomendioak erabil daitezke.

## PROBA AMAITUTAKOAN

- Ikaslea agurtu eta bere laguntzagatik eskerrak eman.
- Ebaluatzaile biek ikasle bakoitzaren emaitza aztertu eta adostuko dute.
- Ebaluazio txantiloian emaitzak erregistratu.
- Ebaluatzaileen balorazio pertsonala gehitu.

## MINTZAMEN PROBA APLIKATZEKO GIDOIA

### AURKEZPEN OROKORRA IKASGELAN

Egun on.

Gaur mintzamen proba egingo dugu.

Proba honetan gai erraz eta ezagunei buruz hitz egin beharko duzue, eta horrexegatik, ziurrenik erraza egingo zaizue.

Bikoteka egingo duzue, hau da, binaka aterako zarete ikasgelatik, eta beste gela batean egingo dugu ebaluazioa. Gutako batek proba zuzenduko du, eta besteak ebaluaziorako interesgarriak diren datuak jasoko ditu. Ba al duzue zalantzarik?

Proba deskribatzen jarraituko dut. Hiru zati ditu:

- Lehenengo zatian, ebaluatzaileak galdera errazak egingo dizkizue, lehenengo bati eta gero besteari, zuen ohiko esperientziei buruz. Zati honek hiru bat minutu iraungo du.
- Bigarren zatian bineta mota ezberdinak erakutsiko dizkizuegu, eta zuek horiei buruz hitz egin beharko diguzue, eta bururatzen zaizuen istorioa kontatu. Bakoitzak bi minutu inguru izango ditu bere gaia azaltzeko.
- Hirugarren zatian, elkarrekin hitz egin beharko duzue, eta proposatzen zaizuen egoeratik abiatuta, eskatutakoa egin. Zati honetarako 2 minutu izango dituzue.
- 

Zalantzaren bat proben zatiei buruz?

Argi baldin badago, bikoteak egiten hasiko gara, proba norekin egingo duzuen jakin dezazuen (***une honetan egingo dira bikoteak, alfabetoaren hurrenkeran, eserita dauden bezala, etab.***)

Orain alde egingo dugu eta proba bost minutu barru hasiko da. Prest egon dadila lehenengo bikotea.

Mesedez, lasai egon, eta egin ezazue proba ahal den ondoen.

Eskerrik asko.

## AURKEZPENA BIKOTE BAKOITZARI

Kaixo, zer moduz? Zuen izenak idatzi, eta hasiko gara.

### 1. ATALA

Lehen zati honetan, galdera batzuk egingo dizkizuet eta ahal den ondoen erantzungo didazue. Zurekin hasiko naiz... (**Ikasleetako baten izena**), ziur ezagutzen dituzun gaien buruzko galderak egingo dizkizut. (**Lehen zatiko galderak egingo dira; arazoren bat hautemanez gero, ebaluatzailearen fitxan jasotako baliabideak izango dira kontuan**). Eta orain, beste galdera batzuk egingo dizkizut zuri.... (**Bigarren ikaslearen izena**).

### 2. ATALA

(**Beharrezko materiala prest eduki eta probaren zati hau ikasle bakoitzarekin banaka egin behar dela kontuan eduki behar da**) Ezer baino lehen materialak erakutsiko dizkizut eta jarraibideak irakurriko ditugu. (**aurrena ikasleetako bati materiala eman eta ebaluatzaileak ikasleari jarraibideak irakurriko dizkio**) Ulertzen duzu zer egin behar duzun? Bada, orduan, hasi egingo gara. (**ikaslearen izena**). Nahi duzunean hasi zaitezke hitz egiten.

### 3. ATALA

Orain hirugarren zatia egingo dugu. (**Materiala banatuko da**). Argibideak irakurriko ditugu (**Beraiekin argibideak irakurri, eta ebaluatzaileak bere eta ikaslearen argibideak irakurriko ditu**). Aurrena, materialak erakutsi eta jarraibideak irakurriko dizkizuet (**materiala ikasleari eman eta ebaluatzaileak ikaslearekin batera irakurriko ditu jarraibideak; gainera, bere eta ikaslearen jarraibideak irakurriko ditu**). Jarri, mesedez, biok aurrez aurre, parez pare, elkarrekin hitz egingo duzue eta. Nahi duena hasi daiteke (**Inor hitz egiten hasi ezean, ebaluatzailea bietako bati hasteko eskatuko dio; adierazpen arazoak badituzte, aldeztu aurretik dokumentazioan, edo ebaluatzailearen orrian, adierazi legez lagunduko zaie**). (**Denbora amaitutakoan, proba amaitutzat emango da, ados jarri ez badira ere**). Proba amaitutzat eman dezakegu. Mila esker zuen ahaleginagatik eta parte-hartzeagatik. Ikasgelara itzuli zaitezke.

## **GOMENDIOAK LAGUNTZA BEHAR DUTEN IKASLEENTZAT**

Gerta daiteke ikasle batzuei, arrazoi ezberdinengatik, duten ahozko adierazpen mailak, galderak ulertzea edo garatu beharrezko lana gutxieneko jariorotasun eta autonomiaz egitea galaraztea.

Ondoren, egoera horretan dauden ikasleak ebaluatzerakoan aintzat hartu beharreko hainbat gomendio aurkeztuko dira. Bestalde, kontuan izan behar da, ikasle bakoitzak hiru ataletan behar duen laguntzaren arabera, bere puntuazioa aldatu egingo dela, bere autonomia ezagatik. Zailtasun horiek emaitzak erregistratzeko txantiloian islatu behar dira.

Ondorengoak dira behar duten ikasleei laguntzeko gomendioak:

### **1. ATALA: GALDEKETA**

- Ulertzeko zailtasun txikiagoa duten galderak aukeratu eta berriro egin edo errazagoak bihurtu.
- Galderak poliki irakurri erabat uler ditzaten eta, ikaslearen hiztegian sarri azaltzen ez diren hitzak azaltzekotan, ordezkoko arruntagoak bilatu.
- Ikasleak esan behar duena pentsatzeko eta bere martxan hitz egin ahal izateko behar beste denbora eman.
- Elkarrizketan ikaslearen zalantza edo segurtasun ezengatik sortutako isilune luzeak ekidin.

### **2. ATALA: BAKARRIZKETA**

- Eskatzen zaion lana ahalik eta zehaztasun gehienekin azaldu, ikasleak ulertu duela ziurtatzeko.
- Kontuan izan zati hau konplexuena dela, eta beraz, ikasleek beren ideiak antolatzeko denbora tarte txiki bat hartu behar dutela azpimarratu behar da.
- Planteatutako galderak edo irudiek gaia garatzeko bide ematen ez badute, berriro galdetu edo bestelako galderak egin ahal dira.
- Azken aukera bezala, proposatutako gaia garatzeko gai ez bada, ikusten ari den egoera edo irudiak deskribatzeko eskatu ahal zaio, eta baita galderen bitartez lagundu ere: Zer ikusten duzu irudian? Nor agertzen da? Non daude?...

### **3. ATALA: ELKARRIZKETA**

- Azaltzen zaien gaiak oso argia izan behar du; irakurri edo ikusterakoan ulertzen ez badute, azaldu egin beharko zaie.
- Elkarrizketa hastea zaila egiten bazaie, biei laguntzea komeni da hasteko erabili ahal duten galdera edo baieztapenen bat eginez.
- Edonola ere, kontuan izan behar da laguntza guztiek beraien arteko elkarrizketa hastera zuzenduta egon behar dutela, ideiak, iritziak eta proposamenak elkartruka ditzaten.

Ikasle bakoitza puntuatzerakoan alderdi hauek guztiak izango dira kontuan.



